"Jakin"-en frutuak euskal literaturan

JUAN SAN MARTIN

JAKIN

EUSKAL KULTURA

Euskal pentsamenduaz idazketa bat zerbait idatzi, pentsatzera honako ferre naguenak sta (nere iritzi). — Kultura eta ideologia. Kulturaren eta ideologiaren neurria zertan datzan. Zein dan hemendiko ulertbidea. — Euskal literatura numeroetan. Gure literatu-arazo bru ikuspuntuak posesoriotan. — Euskaldun kulturaren kaka larria. Euskal kulturaren gauzko aztarak eta eskuzkoak. — Euskal kultura nora eta nola zuzendu behar dugun? Kultura zertaz hartzen dan. Zertaz hartuz lan indar ikusian, eta, gurera etorririk, Herria nolako kulturaren hortan jarri.

JOKIN ARAMBURU, MIKEL A. INTXAUSTI, NIKOLA LASA, IBON SARASOLA, JOAN MARI LEKUONA

NOTA LABURRAK

Kultura eta dogmatismoa. — Euskal jacobinismoa. — Steinbeck lan da. — Gauzko ge hat.

KRONIKAK

Experimentalismoa, poesian ..... JOSE A. OTAEGI
Ikuspegiaren neurria ..... XABIER KINTANA

LIBURUAK

Herriko batasuna eta euskal sibboutza: ekonomia eta kultura ..... RAMUNDO CASBLONG
Bernat Detxepare: Olerkiak ..... N. ALZOLA

Urtekoa: 100 pezta HILBELTZA-OTSAILA Alea: 25 p.

34

"Jakin" izeneko aldizkariaren frutuak inoiz espero genituen baino hobeak eta ugariagoak ditugu. Hau buraratzen zait azken zenbakia irakurtean (34-gurrena).

Artikulu batean ezta posible merezi duen haina sakon eta luze jardutzerik zenbaki horrek soilki eskeintzen digunari buruz, baina euskaldun irakurlerik utzeratuenak ere jakin beharrezko gauzak dakarzkianez, bahoaren antiz galduko badu ere, Z. A. bezalako zabalkunde handiago duen baten aipatzea merezi du. Lehenago Jakin-en kontra gauzak entzun dituenak harrituko dira noski. Izan ere, negargarriak esan dira gure hizkuntza museoko fosil bat bezala ikusi nahi dutenen aldetik. Txarrena da, inoiz, maixu eran agertzen zaizkigula. Baina, gure hizkuntzak, mundu zibilizatuen hizkuntza guziak bezala, eguneun egungo kezka, prolema etu jakintzeri hedu beharra du bizitza orokor batean iraungo badu. Ongi daude irakurgai errexak, gai herrikoiak, folklore-azalezkoak, baina ez dago dudarik jakintza gatak bere toki egokia, denak mimaturik landua, dugula beharrezkoen. Egungo kultura izan behar du herrien giduri, egungo kultura herrikoi gai errexen iturburu. Hau da, herria bera kulturarekin jabetzera begira lan egitea, zeren herria jarri behar da kulturari begira, zeren kultura herriari begira jartzea edozein herrirentzat lujo handiegia da, goren mailako jakitunak gorago begira jarri beharrean behera begira jartzearen harriskua duelako. Gainera, era batera edo bestera, egungo kulturari laket behar dugu. Bestela, hizkuntzak zenbait mekanismu izango ditu geldi, zortzen, erdoitzen, zeharo erdoitua dagoneun museoan sartzeko. Museoan gauza hilak gordetzen bai dira.

Hau da Jakin aldizkariaren arnasa, honela taxutzen du kultur bidea. Euskal pentsamenduaz egiten duen inkestan hori nabaitzen da, Torrealdayk, Lafitte, Satrustegi, Txillardegi, Mikel A. Intxausti, Lete, X. Gereño tab.-i egiten dioten galderetatik. Argi dago gure kultura mugimenduaren iraultza.

Bide hoieri esker, lasai esan geneza: gaur, euskal kulturari buruz lan hobeak idazten dira euskeraz, erderaz baino. Fenomenu hau Axular eta Etxeberri Sarakourekin bakarrik gertatu da Euskal Herriaren historian. Zeren, gainerakoan, beste Etxeberri Ziburukoa, Detxepare, Kardaberaz, eta gutxi batzuek kendu ezkero, erderaz egin dute euskal kulturari buruzko lan on guztia. Fedea obrekin ez badator, fedearen heriotza dator. Hau ondo ikusi zan Vatikano-II-gn, biltzerretan ere.

Badirudi harrisku hortatik irtenak gerala, baina ez gusztiz, eta horregaitik eskatzen da "Jakin"-en zuzendaritzak aldizkari honen sarreran: "Erderaz idatzitako liburu hauei atergabeko gerla egin behar diegu." Gauzko kulturaz ornitzeko beharrezkoak izango ditu euskerak, oraingoz, erderazko goimailako liburuak, baina euskal kulturari buruz erderaz argitaratzen direnak izan bitez erdeldunen jakingarriruko eta ez euskaldunendako.

Zenbaki berean kultura eta ideologiari buruz ari zaigu Mikel A. Intxausti. Arestian esan dituguneturik harat dijoa oraindik, gazte jakitun hau: "Pertsunak, herri bat izan nahi badugu, txikiatzen gaituen kultura antzuari (kreatzerik-eza) kultura sakon bat oposatzea diogu... Herri jabetzea norberaren jabegoatik pasatuko da", dio; eta aurrerago: "Euskal Herririk ezin hizkuntzaren-biologia zokaratzen badugu; Euskal langile Herririk ezin oinarrizko lanabesik gabe. Hunat hemen gureganatu behar dugun (erderari expropiatuaz) produzio-tresna bat".

Mikel Lasak eskeintzen digun arinagoa da, zeren badirudi euskal literatura zerbait landu dutenen erruadela landu-eza. Poetena, besterik esango nuke. Poetak, maiz, politiku mugitzaile direla, gainerako literatura mailak mugitzen dituzten bezala. Ez ote da hala gertatu gurean? Baietzi esango nuke. Arestismoa zirikutzen du, adoleszentismuz salatuaz, baina bere neurritik dijoa. Gainera besterik zion Lasa berak Egan-en, 1964-an (101/103 horrialdeetan) Harri eta Herri lehen aldiz argitara zaneun. Berekoitasuna, neurri batean, gizon ororena da eta holako gauza personalkietan ez gaitezen sar. Gutxiago Aresti bera, denok dakigun bezala, gazte askoren suspertzaile eta laguntzaile izan danez. Besteei laguntzeko diranen berekoitasuna ezta aintzat hartzekoa ere. Txarrago da eman dutena baino gehiago eman zezakeanen antzutasuna. Honek bai ez diola gure elkargoai aurrera biderik ematen. Zahar-gazteen arteko hauziak gutxi baziran, has gaitezen orain adin berekoen artean eta oinaz ta gamboarrak txiki utziko ditugu. Aburuak beharrezkoak ez-ezik, nahi ta nahiezkoak ditugu, noski. Gure aurrerapenen beharrezkoak. Baina salakuntzak izan dezatela funts gehiagokoak.

Ibon Sarasolak euskal literaturari numeruzko begirapen bat jaurtzen dio. Oso interesantea ene iduriz. Nora goazen jakiteko ere non gauden jakitea premiazkoa bait da. Nere liburua hartzen du oinharri, Escritores euskéricos, nere lotsuririako erderaz irten zana. Pekatu guztia ezta nerea. Bi urtean ibili nintzan euskeraz nork argitara, eta lortu nuen guztia: ZERUKO ARGIA-k eta Egan-en bakarrik nahi zuten atera, bainan zatiko. Eta nere iduriz, lanak, esdadistikoa zanez, esku batean behar zuen, liburu batean. Gaizki egin banuen edo ondo egin banuen, ezin besteen eta esdatistiku hutsa zalako amor eman nuen erderaz argitaratzera, eta lehen bait lehen eskuarteau behar genuelako. Sorkunde lan bat izan balitz, kreazio lana esan nahi dut, ez nuen horrelakorik eginen. Orduan, nahiagoko nuen, euskerazko beste lan askoren zorian, nere paper argituragabean zokoan sartu.

Lan honi, Sarasolak arkitu dio probetxuzkoetariko gai bat. Bere lanaren azken datoetan bada hats bat, edo nik hustzat ikusten dudana. 40 urtetik gorakoak eta beherakoak numeruz ematen dituanean, hilak ere tartean sartzen ditu, eta nik, horrelako datu bat, bizi direnekin bakarrik eginen nuen. Zeren, nere liburuan, 1940-tik honerak hil ziren euskal idazleak sartzen bai ditut. Eta hilak 97 dira; beretarik bat bakarra 40 urtetik beherakoa izan zitekeana. Bestalde, asko dira idazteari uspaldi utziak, erretiratuak, eta hauen artean gehienak zaharrak dira. Beruz, gutxi-gora-beherako neurri bat eman beharko banu: gaur, numeruz berdintsu dira 40 urtetik gorakoak eta hortik beherakoak.

Era berean, arrazoi horregatik, 40-tik beherakoak eta mugazanditik gorakoak beti H-kin idatzi dutenez (mugazenmedikoak ez guziak baina bai gehientsunak) euskeraren batasunerako erabagiak Euskaltzaindiak Arantzazun hartu baino lehenagotik. Gaur, duda gabe esan geneza erdiak baino gehiago direla H-kin idazten dutenak. Eta, Arantzazuko lanak argia ikusten dutenean, oso idazle gutxi izango dira H onhartuko ez dutenak. Indar hau ikusirik, batez ere etorkizunera begira, egosgogor daudenak ez ote dute amor emanen batasuna azkartzeko? Zeren ortografian bat egiten dugun eguneun aditzeko batasunarena erabagitzen hasi beharko gera, eta hemen gipuzkoarren egosgogortasunak pundu gehiago irabaziko ditu. Eta ez pentsu, nere aldetik H-ren alde burrukan egiteko gogorik dudanik, nere barne gogoa ezta hain H-zale, baina errazoiaren indarrak eta indarraren indarrak bultzatzen nau horra, serioago lanean jarraitzeko batasun hertsi baten beharra ikusten dudalako. Bestela denbora galtzen ari gera.

Alde hortatik beintzat Jakin-goak eztabaida bizantinoak utzi dituzten. Praxisean ari dira eta hori da jokabiderik jaterrena, Jakin-ek, bere kultur lana batasunaren bide hertsietatik daruma. Gauzatxo bat eskatuko nioke, mezedez, H-a hobeto erabiltea, zeren orandik hatsunak nabaritzen ditugu, behar diran zenbait tokitan ez agertzean. Hori bai, behar ez dan tokian ez erabiltea lortu duela esango nuke, eta bestearen zuzenketa ere lortuko duten konfiantza dut.

Euskal kultura nora eta nola zuzendu behar dugunari buruzko salakera ederra eskeintzen digu Jokin Apalategik. Bete behar normatiboak eskeintzen dizkigu. Pundu batzuetan ados ez bagatoz ere, lan sakona dugu, serioki landua, zenbaki honetako landuena noski. Gure herriaren biharko nortasuna, berak markatzen dizkigun bide hoietatik bakarrik lortu genezake. Eta gure kultura ekintza honetan, gure kultura desarrollatze honetan, gure barnerano erderak jarri digun muga dugu etsairik handiena. Konklusio hortara heltzen gera Apalategirena irakur ondorean. Eta izpilu baten aurrean jartzen ditu euskeltzale izanik erdel-idazle direnak. Etsaiaren arimak jabetarik dituela dirudi.

R. Arregi, J. Azurmendi, C. Santamaria eta I. Sarasolak betetzen dituzten nota laburrak, irakurgai atsegin eta jakingarriak dira. J. Azurmendiren poesiaren esperimentalismoa oso interesantea. Era hoiek gutxi landuak ditugu gure poesiak I. Sarasola eta J. A. Arzez aparte, eta inun izatekotan poesian behar ditugunez bide lasaiak (era berriak sortzen edo saiatzen esan nahi dut), batez ere aurrera begira esperimentatuaz. Horregaitik, berak Azurmendik garrantzi gutxi ematen badio ere, bere lana ezahugarria da, interesantea, eta artea dan aldetik fonetikazko doinuz musikaren zer ikusiduna eta formaren aldetik plastikazko estetikekin berdin. Beraz, gu ere zergatik ez hoiekin baliatu?

X. Kintanak, biologia gaitzat, zezula erdibitzeari buruz ari da. Gamblogen lan baten jarraitzen dio herriko batasuna edo euskal kibboutza: ekonokia eta kultura. Baina ezin eman artikulu batean gai guzien zehaztasunik. Jakin-golan bakoitzak artikulu berezi bat merezi du bere zera adieraziz. Kezka pittin bat duen euskaldunak, berdin egiazko euskaltzalea, ubiatu beza bere horriak barna eta zentzua lantzeko urkituko du aukerarik aski.

Euskal literaturaren azken eta goren mailako lan hauen bukaeran, tu ezta paradoja, Bernat Detxepareren Olerkiak liburuaren erreseina bat dakar, N. Alzolak egina. Eta ezta paradoja hainbeste gauza berriren artean euskal libururik zaharrena (1545) aipatzea, zeren Detxepare bere mendearen lekuko jatorra degu, eta gaurko euskal idazle gazteak egungo mendearen lekuko izan nahiriko iraultzan azaltzen zaizkigulako. Jakinek merezi du euskaldun zintzo guztien agurra, eta zer esanik ere ez harpidetza. Bere harpidedun eztan euskaltzalea ez bait da egiazko euskaltzalea.

Iraungo ahal du bide hortatik aintz artean Euskal Herriaren onerako.

GURE LIBURUAK

EUSKERA IRRATI BIDEZ

Euskalduna euskerak egiten duala esaten, aspertu ere egin gera. Gure erri ontan, ezer estimagarri badegu, gere izkuntza degu. Urte luzeak joan zazikigu, izkuntza ori gure errian nola nagusituko asmatzen. Eta gure artean ba degu irakasle-sail bat egiteko ontan jo ta ke ari dana.

Euskera ikastoletan, euskera albistarietan, euskera irrati-bidez... Yon Oñatibia izan da onetan guzioi aurrea artu digun gizona. Lengo xixtema zaarrak albora utzita, or ari baitzaigu alde guzietan gure izkuntzaren eskola zabaltzen.

Berea da lenbiziko aldiz Gipuzkoako euskera erakusteko argitaldu zuan «METODO DE EUSKERA RADIOFONICO. «Urrengo, bizkaiera erakusteko beste liburua atera zigun, eta orain emen degu eskuetan, Laburdi'ko euskerara egokitua, bere xixtema ori.

Oraingo liburu berri onek, «METHODE D'EUSKUARA RADIOPHONIQUE» du izena. Lenengo ikasaldia ematen digu bere onetan, Laburdi-ko euskera erakusteko. Lengo bere beste liburuak ezagutzen ditugunok, pozik artzen degu beste irugarren au.

Ta batez ere, Oñatibia adiskideak au erakutsi digu: gure lana alde guzietara zabal ditekela. Izan du eskua ontan, eta guziok jarrai bear genioke egiteko onetan.

«EUSKERA ARTEZ» ere, multikopista bidez aterea du euskal-irakasleentzako. Eztu lan makala egin gure artean bere liburu oiekin.

Ta eman digun erakusbiderik onena, au izan da: gure arteko setakerietan denbora galdu gabe, bere lan ixillean aurrera egin du euskera erakusten. Auxe degu bearrena euskaldunok.

Gure ikastolak ditugula bitarte; gure Euskera Batua aitzaki artuta, berriro or ari gera: ni gazte ta zu zaar; nik «H» ta zuk «H»rik ez... Eta bitartean gure erria euskera galtzen. Motellak! ba-da ordua setakeriak alde batera botatzeko ta Oñaz ta Ganboa berririk ez sortzeko.

Oñatibia Yon-ek gure txalorik beroenak eta luzeenak merezi ditu eman digun erakusbide orregatik.

FAGOAGA'REN LIBURU BAT

Eta laioa gaiñera. «Los poetas y el País Vasco», deritza.

Liburu onek ez du akatsarik, erderaz egiña izatea baizik. Ala ere, interesgarria ta batezere komenigarria gure gaurko gaztedi urdurituarentzat, asko ikasi bai-lezateke bere jakin-minaz bultzaturik bere mamian xurgatzen ba-dute.

Fagoaga, bere euskal arimaren leiotik, bere euskal biotzaren leiotik Euskal Erriaren lur eta izakerara azaltzen da liburu onetan. Eta leio onetara zintzotasunez azaltzen dalarik begi, biotz eta adimena jartzen ditu Euskal Erriko bidetxiurretatik datozten bere maitaleak ikusi, nabaitu ta argitzeko.

Onelaxe Victor Hugo, Pierre Loti, Rostand, Cervantes erbestekoak, eta Unamuno ta batezere gure Iparragirre ameslariak ziotena gure erriaren aurrean, aztertzen ditu.

Idazle auek gure Euskal Erriak lilluratu ba-zitun, gure aldeko sentimenetan idatzi zituzten ainbat orri eder gauz eder askorekin. Baiñan baita ere zenbait uste oker zabaldu zituzten, batzuek beñepein, gure erriaren osotasuna ezagutzeko ainbat betarik izan ez zutelako.

Emen datza Fagoago'ren meritoa. Idazle auen idatziak dakarzki bere liburuan baiñan berak, arrokeririk gabe, esakera apartatsu gaberik baizik itz apaletan, idatzi auek aztertzen ditu ta gizon jakintsu olen erruak goxoki azaltzen ditu, irakurleak egiaren iturri garbitik edan dezan.

Guzia, labain-labain irakurtzen da, errex eta atseginez. Batezere Iparragirre, tzaz mintzatzen danean euskal urduriz dardaratzen du biotza. Eta benetan laguntzen du gure koblaria ondo ezagutzen, bertan jakingarri bat emanaz euskaldun askok ezagutzen ez dutena.

Neri oso atsegin izan zait liburu au. Ta gure gauzen maitaleak ere orrela artuko dutela, uste osoan nago. Auxen da, bada, opa diotan garaitza personalki ezagutzen ez detan Ixidoro Fagoaga jaunari.

X. OLAZABAL

GURELESA

Gipuzkoa'ko ta Naparroa'ko esne onenakin gertatutako esneklak:

— Esne Pasturizatua
— Esne solila (esterilizatua)
— Esne autsa
— Esne-gaiña
— Gurina
— Yogur
— Batiduak

Igara auzoa - Apart. 213 - Urrut. 29060 (Iau ari) — DONOSTIA

AINHOA

JANZKI EGINAK

Ondo jantzi nai al zera?
Zoaz «Ainhoa» dendara.
Janzki apañak
Ondo egiñak.

S. Roke Kaleko 12'an.
DEBA'N